

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Ogasun Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren 273/2016 Foru Agindua, maiatzaren 16koa, Ogasun zuzendariari enbargarako informazioa eskuratzearen gaineko zenbait ahalmen eskuordetzan ematekoa

Arabako Lurralde Historikoko Dirubilketa Erregelamendua onartzen duen Foru Dekretuaren 143. artikulua 5. paragrafoaren arabera (48/1994 Foru Dekretua, maiatzaren 10ekoa), zordunaren ondasunei buruzko informazioa biltzeko orduan, eta enbargarako informazioaren gaia bada banku, aurrezki kutxa eta banku edo kreditu trafikoa jarduten diren pertsona fisiko eta juridiko ororen kontu mugimenduak eta gainerako eragiketa aktiboak eta pasiboak, beharrezkoa izango da diru bilketan aritzen diren organo eta agenteek, entitate horiei errekerimendua egin aurretik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren baimena izan dezaten.

Arintasuna eta eraginkortasuna dela-eta, gomendagarria da baimen hori emateko ahalmena Ogasun zuzendariaren esku uztea.

Iritzirik betetzen direla Arabako Foru Aldundiaren Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko Foru Arauaren 94. artikuluan ahalmen hori eskuordetzeko ezarritako baldintzak (52/1992 Foru Araua, abenduaren 18koa)

Ikusirik Zerga Araudiaren Zerbitzuak horri buruz emandako txostena.

Horregatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

XEDATZEN DUT

Bakarra. Ogasun zuzendariari eskuordetzea banku, aurrezki kutxa eta banku edo kreditu trafikoa jarduten diren pertsona fisiko edo juridiko orori enbargarako informazioa galdegitako baimena dirubilketako organo eta agenteei emateko ahalmena, noiz ere galdegiten den kontu mugimenduei eta gainerako aktibo eta pasibo eragiketei buruzko informazioa, 48/1994 Foru Dekretuaren 143. artikulua 5. paragrafoan aurreikusten dena (48/1994 Foru Dekretua, maiatzaren 10ekoa, Arabako Lurralde Historikoko Dirubilketa Erregelamendu Orokorra onartzen duena).

AZKEN XEDAPENA

Foru agindu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Gasteiz, 2016ko maiatzaren 16a

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua
JOSE LUIS CIMIANO RUIZ

Ogasun zuzendaria
TERESA VIGURI MARTINEZ